BESTELAKO XEDAPENAK

EKONOMIAREN GARAPEN ETA LEHIAKORTASUN SAILA

2340

EBAZPENA, 2014ko maiatzaren 16koa, Elikagaien Kalitate eta Industriako zuzendariarena, urtarrilaren 26ko 30/2010 Dekretuaren babespean 2013ko ekitaldian emandako diru-laguntzen onuradunen zerrenda argitaratzekoa. Dekretu horren bidez, Europako Erkidegoak fruten eta barazkien arloa arautzeko sortuak dituen erregelamenduak eta erregelamendu horietatik datorren laguntza-sistema Euskal Autonomia Erkidegoan nola garatu eta aplikatu arautzen da.

Europako Erkidegoak fruten eta barazkien arloa arautzeko sortuak dituen erregelamenduak eta erregelamendu horietatik datorren laguntza-sistema Euskal Autonomia Erkidegoan nola garatu eta aplikatu arautzen duen urtarrilaren 26ko 30/2010 Dekretuaren 25.1 artikuluan honako hau xedatzen da: «Bai Europako Erkidegoko funtsetatik datozen laguntzetarako eskabideak, bai Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorretatik datozen laguntzetarako eskabideak elikagai-industrien eskumenak dituen zuzendaritzan aurkeztu beharko dira. Denak aldi berean aurkeztu beharko dira, beranduenera jota hurrengo urteko otsailaren 15ean, alegia, eskabidea zein urtetarako den, hurrengo urteko egun horretan beranduenera ere».

Fruta- eta barazki-ekoizleen elkarteentzako 2013. urteko laguntzen zenbateko osoa jakitera eman zen, Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuaren 2013ko uztailaren 31ko Aginduaren bidez.

Ebazpenak eman eta esleipendunei jakinarazi ondoren, Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onartu zuen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren 49. artikuluaren 2. paragrafoko bigarren idatzi-zatian eta urtarrilaren 26ko 30/2010 Dekretuaren 25.4 artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, hauxe

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Urtarrilaren 26ko 30/2010 Dekretuaren babespean 2013ko ekitaldian emandako diru-laguntzen onuradunen zerrenda argitaratzea. Dekretu horren bidez, Europako Erkidegoak fruten eta barazkien arloa arautzeko sortuak dituen erregelamenduak eta erregelamendu horietatik datorren laguntza-sistema Euskal Autonomia Erkidegoan nola garatu eta aplikatu arautzen da. Zerrenda hori ebazpen honetako eranskinean agertzen da.

Bigarrena.– Ebazpen honen aurka, interesdunek gorako errekurtsoa jar diezaiokete Nekazaritzako, Arrantzako eta Elikagai Politikako sailburuordeari, hilabeteko epean, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik kontatzen hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2014ko maiatzaren 16a.

Elikagaien Kalitate eta Industriako zuzendaria,
PELI MANTEROLA ARTETA.

ERANSKINA

URTARRILAREN 26KO 30/2010 DEKRETUAREN BABESPEAN 2013EKO EKITALDIAN EMANDAKO DIRU-LAGUNTZEN ONURADUNEN ZERRENDA. DEKRETU HORREN BIDEZ, EUROPAKO ERKIDEGOAK FRUTEN ETA BARAZKIEN ARLOA ARAUTZEKO SORTUAK DITUEN ERREGELAMENDUAK ETA ERREGELAMENDU HORIETATIK DATORREN LAGUNTZA-SISTEMA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN NOLA GARATU ETA APLIKATU ARAUTZEN DA

	NBEUF laguntza	Eusko Jaurlaritzaren laguntza	Guztira
Garaia Sdad. Coop.	123.104,06 €	69.351,87 €	192.455,32 €
Barrenetxe Sdad. Coop.	92.521,19 €	50.648,13 €	143.169,32 €
Guztira	215.625,25 €	120.000,00 €	335.625,25 €